



I.1 ERANSKINA: DEBABARRENEKO AREA FUNTZIONALA.

(1. Emaitzak eta balioespena; 2. Fitxak; 3. Laburpen taula; 4. Dokumentazio grafikoa).



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

1. EMAITZAK ETA BALIOSPENA. DEBABARRENEKO AREA FUNTZIONALA.



26 eremu independentetan banatutako eremu funtzional honetan hondatu gisa inbentariatutako industria-lurzoruen guztizkoa 145,86 ha-koa da, hau da, eskualdean garatutako industria-lurzoru guztien % 59,35 (245,75 ha).

Zifra oso altua da, eta oso bestelakoa da, bai Gipuzkoa osoko batez besteko ehunekoarekin (% 22,21), bai gainerako eskualdeetakoekin (Debagoiena, % 7,58; Donostialdea, % 14,70; Tolosaldea, % 20,44; Goierri, % 27,72; Urola-Kosta, % 30,85).

Hala ere, kontuan hartu behar da area funtzional horren errealitate industrial. Izan ere, kokaleku zaharkitu ugari baititu eta ia jarduerarik ez baitu Eibarren, Elgoibarren eta Soraluzen nagusiki. Era berean, adierazi behar da emaitza horiek oso baldintzatuta daudela Itziar/Debako poligonoarekin (Gipuzkoako handiena, ziur aski); izan ere, 72,02 hektarea ditu eta, beraz, eskualde horretan garatutako industriako lurzoruen guztizkoaren ia % 30 da. Berezitasun hori gabe, area funtzional horren zifrak gehiago hurbilduko lirateke Goierri edo Urola-Kostako areei buruzko kopuruetara.

	GIPUZKOAKO INDUSTRIAGUNE HONDATUEN LABURPEN KOADROA								
	I. MOTA		II. MOTA		III. MOTA		I+II+III MOTAK		A Ind Garatua
Udalerrria	Eremua	A.(ha.)	Eremua	A.(ha.)	Eremua	A.(ha.)	Eremua	A.(ha.)	A. (ha.)
DEBA	A.U. 18 P.I. Itziar	72,02	A.U.20 I. Automóvil	3,28			2	75,3	78,97
EIBAR	A.8.2 Otaola	14,29	A.I.12.1 Barrena I	2,3	A.I.109.01 Arane-Urtz	0,78			
					A.I.203.01 Otaola10-16	0,57			
					A.2.5 Arane	1,14			
					A.9.2 Asua Erreka	1,17			
					A.I.125 Txonta	7,7			
					A.I.207 Matsaria	4,84	8	32,79	52,38
ELGOIBAR		15,07	A.6A Urasandiberri	5,59					
			A.7C Aitzkorri 3	1,22					
			A.8A Olasoate	1,4			4	23,28	73,91
MENDARO			A.01 Garagartza 1	0,08	A.39 Expl. Aizkoltxo	1,76	2	1,84	13,40
MUTRIKU	S.I.2 Txirrita	3,51	Metec Motric S.A.	0,17			2	3,68	13,57
SORALUZE	A.U.27 Sagar-Erreka	2,04	A.U.1 Aginaga-Maltzaga	2,28	A.U.2 Amillaga	1,47			
			A.U.14 Olalde	0,88					
			A.U.16 Mendizabal	0,7					
			A.U.17 Saloguen	0,17					
			A.U.20 Errekalde-Goi.	0,4					
			A.U.25 Cañones	1,03			8	8,97	13,52
GUZTIRA	5	106,93	13	19,5	8	19,43	26	145,86	245,75
% AF garatutako industria A guztia		%43,51		% 7,93		% 7,91		%59,35	
BIZITEGIRA ERREKALIFIKATUTAKOA		0	7,5	8,48	15,98				
% AF industri A hondatu guztia		% 0,00		% 5,14		% 5,81		%10,96	

Inbentarioan jasotako lurzoruen banaketa, azterlanean bereizitako hiru kasu edo moten arabera, gertatzen da, hala ere, batez besteko Gipuzkoako ehunekoetatik oso urrun ez dauden ehunekoetan; nolanahi ere, baldintzatuta dago Itziar-ko eremua I. motari atxikita egoteagatik. Horrela, hautatutako lurzoruen ia hiru laurdenak (106,93 ha, 5 eremu) "gabezia funtzionalak dituzten areak" edo I. motakoak dira, eta eskualdean garatutako industria-lurzoru guztien % 43,51 osatzen dute; gainerako lurzoruak integratuta gelditzen dira, zati ia berdinetan, "jarduera gutxi edo batere ez duten industrialdeak" edo II. motan (19,5 ha, 13 eremu) eta "oso hondatuta dauden industrialdeak" III. motan (19,43 ha, 8



eremu), eskualdean industrian garatutako guztizkoaren % 7,93 eta % 7,91 hurrenez hurren.

Inbentarioan jasotako 26 industria areetatik 21 industrial gisa kalifikatuta daude gaur egun indarrean dagoen hirigintza plangintzan (horrek esan nahi du bertako egungo industria erabilera finkatu egingo dela epe ertain luzean), baina beste 3 bizitegi gisa birkalifikatuta daude aipatutako plangintzan. Hau da, azken horiek xede dute, teoriarik, etorkizunean hirigintza eraldaketa egitea eta, ondorioz, ez dira izango jarduera ekonomiko produktiborako erreserbatutako eremu. Bostak, nolana ere, ia jarduerarik gabeko eremuei dagozkie; kasu batzuetan, gainera, bertan behera utzita eta narriadura maila handia dute. Guztira, bizitegi erabilerarako birkalifikatutako areek 15,98 hektareako azalera dute, hau da, area funtzional horretan inbentarioa osatzen duten lurzoru hondatu guztien % 10,96.

Area funtzionala osatzen duten 6 udalerrietatik, guztiak hautatuak, honako hauek nabarmentzen dira: Eibar (guztira 32,79 ha dituzten 8 eremurekin), Elgoibar (4 eremu, 23,28 ha) eta Deba (2 eremu, 75,30 ha). Aipamen berezia merezi du Sorluzeren kasuak: inbentarioan 8 eremu daude, eta 8,97 ha baino ez badute ere, ia guztiak (zortzietatik zazpi) eremu "itxiak" edo ia jarduerarik gabeak dira. Mutrikuk eta Mendarok osatzen dute zerrenda; bakoitzak bi eremu ditu, eta lau hektareatik beherako azalera inbentariatua guztira udalerrri bakoitzeko.

Kontuan hartutako moten arabera eskualdean inbentariatu diren eremuen tamainari dagokionez, jarraian erantsi den laburpen taula ateratzen da. Espero zitekeen bezala, Itziarko industrialdea Deban egoteak argi eta garbi baldintzatzen ditu emaitzak tamaina handiko eremuei dagokienez (> 10 ha).

	INDUSTRIGUNE HONDATUEN INBENTARIOA / DEBABARRENAKO A.F							
	I. MOTA		II. MOTA		III. MOTA		I+II+III MOTAK	
	Kopurua	A.(ha.)	Kopurua	A.(ha.)	Kopurua	A.(ha.)	Kop	A.(ha.) % inben guzt
ESPARRUAK AZALERAREN ARABERA								
< 1 ha.			6	2,4	2	1,35	8	3,75 % 2,57
1ha.-3ha.	1	2,04	5	8,23	4	5,54	10	15,81 %10,84
3ha.-10ha.	1	3,51	2	8,87	2	12,54	5	24,92 %17,08
10ha.-25 ha.	2	29,36					2	29,36 %20,13
> 25ha.	1	72,02					1	72,02 %49,38
GUZTIRA							26	145,86 %100,0

Azkenik, eremu funtzional honetan hautatutako industria eremu guztien artean, aipagarrienak hauek dira:

- **AU. 18 P.I. Itziar (Deba):** 72,02 hektarearekin, Gipuzkoan inbentariatutako eremurik zabalena da. 1973an onartutako Plan Partzial batean du jatorria. Hasiera batean, jabe bakarraren eremua, dena pribatua (bideak barne), partzialki urbanizatu zen, etapaka. Kontserbazio eskasak justifikatzen du inbentario honetan sartzea. → (I. Mota).
- **A.I. 125 Txonta (Eibar):** aspalditik jarduerarik gabe, eremua, 7,7 hektareakoa, hiri abandonu eta narriatu egoera nabarmenean dago, eta itxitako eraikin ugari ditu. 2006az geroztik bizitegi gisa kalifikatuta, 2012an hirigintza hitzarmen bat sinatu zuten Udalak eta Eusko Jaurlaritzak, biziberritze urbanistikoa sustatzeko eta,



horrela, etxebizitza publikoak eraiki ahal izateko. 2015ean, bizitegi antolamendurako proposamen berri bat onartu zen, aurrekoa ordezkatzuz, auzitegiek 2009an baliogabetu zutena. → (III. mota).

- **A.I. 207 Matsaria (Eibar):** aspaldidanik oso jarduera eskasa izan du (Matsaria 2 izan ezik); halaber, eremu hori, 4,84 hektareakoa, oso narriatua dago, eraikin gehienak erdi abandonatuak baitaude. 2006az geroztik, plangintzan aurreikusita dago balio erantsi handiko jarduera ekonomikoko eremu gisa berrantolatzea, nahiz eta orain arte prozesua ez den hasi. → (III. mota).
- **A.6A Urasandiberri (Elgoibar):** hirigunearen barruan dago, eta gaur egun jarduera maila eskasa du. Area, 5,59 hektareakoa, bizitegi gisa kalifikatuta dago 2012. urteaz geroztik plangintza orokorraren arabera. Orain arte ez da hasi eraldaketa prozesua. → (II. mota).
- **A.39 Aizkoltxo zabaldegia (Mendaro):** Deba ibaiaren meandro batean dagoen 1,76 hektareako area. Bertan kokatutako enpresak bere garaian garatutako jarduera dela-eta (eraikuntzako produktuak aire zabalean biltegitratzea, ibaian kontrolik gabeko materiala isurtzea, etab.), eremu osoa nabarmen narriatua dago gaur egun, eta nabarmena da inguru hurbilean ingurumenean eta paisaian izandako eragina. → (III. mota).
- **AU. AU. 1 Aginaga-Maltzaga (Soraluze):** 2,28 hektareako eremu industrial, Maltzaga auzoan kokatua, gaur egun jarduerarik gabe dago, Gerdau (lehen Gabilondo eta Semeak) berriki itxi ondoren. Ibaiaren gain-gainea dago, eskuineko ertzean, eta eraikinek ia eremu osoa okupatzen dute, ibaiaren bidez zorra ere hartzeraino. → (II. mota).
- **AU. 25 Kanoi fabrika (Soraluze):** SAPA 2004an itxi zenetik, hirigunean integratuta eta jarduerarik gabe dago; eremua, 1,03 hektareakoa, bizitegi gisa kalifikatuta dago indarrean dagoen plangintza orokorraren arabera (2017). Orain arte ez da birmoldaketa lanik hasi. → (II. mota).



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

2. FITXAK. DEBABARRENEKO AREA FUNTZIONALA.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

AU.18. "ITZIARKO INDUSTRIA POLIGONOA".

029-01

DEBA

I. KOKAPENA / DATU OROKORRA

	ESPARRUAREN AZALERA	720.190 m ²
	LURZATI INDUSTRIALEN AZALERA	396.104 m ²
	AZALERA OKUPATUA (ERAIKUNTZA)	- m ²
	HUTSI DAGOEN AZALERA (ERAIK.)	- m ²
	JARDUERA MOTAREN NEURRIA	E/H
	EZARPEN URTEA	70. hamarkada
	PLANGINTZA TRESNAK	BAI
	KONTSERBAZIO ERAKUNDEA	BAI



1/20.000





Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

II. INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA PLANGINTZA

Hiri Antolaketa Arauak/ 2007-05-10
LURZORUAREN SAILKAPENA: Hiri lurzoru finkatua
LURZORUAREN KALIFIKAZIOA: Industria Zona Komuna (B.1).
BESTELAKO ZEHAZTAPENAK: - Itziarko industrialdea Plan Partzial bat eta Urbanizazio Proiektu bat izapidetzearen ondorioz sortu zen. Urbanizazio proiektua 1973-07-24an onartu zen behin betiko. Eremu osoa jabetza pribatukoa da (bideak, aparkalekuak eta abar barne), eta jatorrian jabe bakar bati zegokion. - Indarrean dauden Arau Subsidiarioek gauzatu diren industria-garapenak finkatzen dituzte, eta, aldi berean, egiteke dagoen hirigintza eraikigarritasuna gauzatzeko baldintzak ezartzen dituzte. Kontuan hartuta urbanizazioa partzialki egin zela, eta gaur egun "arretarik gabe" dagoela kontuan hartuta, arauak urbanizazio proiektu berri baten birformulazioa aurreikusten dute.

III. DIAGNOSTIKO OROKORRA

JARDUERA MAILA:	> %75 ¹
FUNTZIONALITATE OROKORRA (sarbideak, barneko sarea, zuzkidurak eta abar):	
- Area handia da eta GI-3210 errepidearen bi aldeetan dago; sarbide ugari ditu errepidetik, orokorrean modu egokian eginak. - Ez du espazio libre eta ekipamendu zuzkidurarik. - Ez du aparkaleku arazorik, baina gune askotan aparkalekuak formalizatu gabe daude..	
ZERBITZUAK:	
- Oinarrizkoak + gas naturala + zuntz optikoa.	
URBANIZAZIOAREN MAILA ETA EGOERA:	
- Oinarrizkoa (gauzatu gabeko zatia). Kontserbazio egoera: erdizkakoa	
ERAIKUNTZAREN EGOERA:	
- Ona	

IV. JARDUERA ILDOAK

- Eremuaren garrantzia eta arazoak kontuan hartuta, Plan Berezia idaztea komeni da, biziberritze urbanistikorako parametroak ezartze aldera; izan ere, Arau Subsidiarioen dokumentuan ezarritako hirigintza erregulazioa ez da nahikoa. - Arearen urbanizazioa hobetzea. Ekimena: publikoa. - Eraikina birgaitzea, hala badagokio.
--

¹ Gaur egun eraikita dauden lurzatiei buruzkoa.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

AU.20. "INDUSTRIAL AUTOMOVIL AUTOPISTA".

029-02

DEBA

I. KOKAPENA / DATU OROKORRAK



ESPARRUAREN AZALERA	32.761 m ²
LURZATI INDUSTRIALEN AZALERA	- m ²
AZALERA OKUPATUA (ERAIKUNTZA)	- m ²
HUTSIK DAGOEN AZALERA (ERAIK.)	4.000 m ²
JARDURA MOTAREN NEURRIA	T/E
EZARPEN URTEA	70.hamarkada
PLANGINTZA TRESNKA	EZ
KONTSERBAZIO ERAKUNDEA	EZ



E: 1/5.000





Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

II. PLANEAMIENTO URBANISTICO VIGENTE

Hiri Antolaketa Arauak/ 2007-05-10
LURZORUAREN SAILKAPENA: Hiri lurzoru finkatua.
LURZORUAREN KALIFIKAZIOA: Industria Zona Komuna (B.1).
BESTELAKO ZEHAZTAPENAK: - Eremua autobidea eraikitakoan sortu zen, A-8 autobideko zerbitzugunearen jarraipen gisa. Ia lurzoru guztia titulartasun pribatukoa da. - Indarrean dauden Arau Subsidiarioek gauzatu diren industria-garapenak finkatzen dituzte, eta, aldi berean, eraikitzeaz dagoen hirigintza eraikigarritasuna gauzatzeko baldintzak ezartzen dituzte (20.1 exekuzio unitatea mugatzen da, Desguaces Debaren ondoan hutsik dauden lursailetan) - Urbanizazio Proiektu bat idaztea aurreikusten da, zonaren urbanizazioa osatzeko.

III. DIAGNOSTIKO OROKORRA

JARDUERA MAILA:	% 25-50
FUNTZIONALITATE OROKORRA (sarbideak, barneko sarea, zuzkidurak eta abar):	
- Industriagunea bi eremutan bereizten da N-634 errepidearen alde banatan. Errepideak sarrera irteera ugari ditu, orokorrean ongi antolatuak. Horietako bat da A-8 autobidetik gertuen dagoena. Eraiki gabe dagoen guneko sarrera, berriz, ia urbanizatu gabe dago eta behin behinekoa dirudi, batik bat, Desguaces Debaren ondoan dagoen eraikinaren sarrera (itxita edo erabilera eskasa baitu). - Ez dago inolako zuzkidurarik. Azpiero urbanizatuak, dena den, ez du aparkaleku arazorik.	
ZERBITZUAK: Oinarritzkoak.	
URBANIZAZIOAREN MAILA ETA EGOERA:	
- Oinarritzkoa. Egoera onean dago. - A-8tik urrutien dagoen azpiero urbanizatu gabe dago.	
ERAIKUNTZAREN EGOERA:	
- Ona, Desguaces Debaren ondoko eraikina izan ezik, kontserbazio egoera kaskarragoan baitago.	

IV. JARDUERA ILDOAK

- Desguaces Deba azpieroaren urbanizatzeko - Eraikina birgaitzea, hala badagokio.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

A.8.2. "OTAOLA".

030-01

EIBAR

I. KOKAPENA / DATU OROKORRAK



ESPARRUAREN AZALERA	142.849 m ²
LURZATI INDUSTRIALAREN AZALERA	- m ²
AZALERA OKUPATUA (ERAIKUNTZA)	- m ²
HUTSIK DAGOEN AZALERA (ERAIK.)	- m ²
JARDUERA MOTAREN NEURRIA	T/E
EZARPEN URTEA	1954 aurrekoa
PLANGINTZA TRESNAK	EZ
KONTSERBAZIO ERAKUNDEA	EZ



1:8.000





Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

II. INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA PLANGINTZA

HAPO / 2006-12-12 + HAPO Aldaketa / 2012-12-23
LURZORUAREN SAILKAPENA: Hiri lurzorua.
LURZORUAREN KALIFIKAZIOA: Jarduera ekonomikoko eremua.
BESTELAKO ZEHAZTAPENAK: - HAPOak eremuan gauzatzen diren izaera desberdineko erabilerak eta aprobetxamenduak (tertzarioak, ekipamendukoak, industrialak, etab.) finkatzen ditu, eta, aldi berean, gaur egun gutxi eraikita dauden partzelak ordeztuko eta/edo betetzeko aukera ematen du. - Era berean, Otaola eta Torrekua kaleen arteko bide-lotura hobetu nahi da, oinezkoen eta/edo ibilgailuen iragazkortasun handiagoa ahalbidetuz, bai eta Torrekua ondoko erriberako pasealekua berreskuratu ere, dagokion zortasuna okupatzen duten eraikinak ordeztzen diren heinean.

III. DIAGNOSTIKO OROKORRA

JARDUERA MAILA:	> % 75
FUNTZIONALITATE OROKORRA (sarbideak barneko sarea, zuzkidurak eta abar):	
- Oso eremu zabala da, industria-jatorrikoa, herrigunearen mendebaldean kokatua, Ermurako irteeran. Otaola kalearen bi aldeetan egituratuta dago funtsean, eta iparraldeko muga Ego ibaia da (estalita ez dagoen zatian). - Lokaletarako sarbideak, kasu askotan, Otaola kaletik egiten dira zuzenean, eta aparkaleku gutxi daude eraikinaren eta kale horren artean geratzen den jabari pribatuko edo publikoko zerrenda librean. - Azken urteetan, berritzeko zenbait eragiketa egin dira (Ospitalea, Eroski, Mercadona, etab.), eta horrek hiri-irudia hobetzea ekarri du. Hala eta guztiz ere, gaur egun zenbait eraikin egoera prekarioan daude (batez ere, goiko aldean, Santa Inés kalearen ondoan), eta Otaola kalearen oinean ere hainbat bertan behera utzita daude, 10 eta 16 zenbakien artean.(A.I.203.01).	
ZERBITZUAK:	
- Oinarrizkoak.	
URBANIZAZIO MAILA ETA EGOERA:	
- Egokia da, Otaola kaleko tarte jakin batzuetan izan ezik, non urbanizazioa birmoldatu eta hobetu behar baita. Kontserbazio egoera ona (aipatutako zatietan izan ezik).	
ERAIKUNTZA EGOERA:	
- Bertan behera utzitako eta zaharkituak geratu diren eraikin batzuk izan ezik, gainerakoak kontserbazio egoera onean daude	

IV. JARDUERA ILDOAK

- Eremuko urbanizazioa hobetzea. Ekimena: publikoa. - Gar egun bertan behera utzitako eta zaharkituak geratu diren eraikinak ordezte edota birgaitzea.
--



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

A.12.1. "BARRENA I".	030-02
	EIBAR

I. KOKAPENA / DATU OROKORRAK

	ESPARRUAREN AZALERA	23.048 m ²
	LURZATI INDUSTRIALAREN AZALERA	13.373 m ²
	AZALERA OKUPATUA (ERAIKUNTZA)	8.405 m ²
	HUTSIK DAGOEN AZALERA (ERAIK.)	0 m ²
	JARDUERA MOTAREN NEURRIA	T/E
	EZARPEN URTEA	1954 aurrekoa
	PLANGINTZA TRESNAK	EZ
	KONTSERBAZIO ERAKUNDEA	EZ



1:4.000





Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

II. INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA PLANGINTZA

HAPO / 2009-05-25
LURZORUAREN SAILKAPENA: Hiri lurzoru finkatua.
LURZORUAREN KALIFIKAZIOA: Jarduera ekonomikoko eremua.
BESTELAKO ZEHAZTAPENAK - Hemen inbentariatutako eremua A.I.12.1 Barrena I arearen zatia da, eta indarrean dagoen HAPOan "industrial" gisa kalifikatua dago. Eremu horretan, gauzatutako erabilerak eta aprobetxamenduak finkatzen ditu planak, baina, eraikin batzuk jabari publiko hidraulikoa okupatzen ari direnez, eraikina ordezkatu edo erabilera aldatzen bada, ibaiertzeko pasealekua berreskuratzea aurreikusten da (Ego ibaiaren ibilgua irekitzea barne), Azitain eta Estaziño artean konfiguratu beharreko parke lineal bat sortzeko aukera emanez.

III. DIAGNOSTIKO OROKORRA

JARDUERA MAILA:	% 25-50
FUNTZIONALITATE OROKORRA (sarbideak, barneko sarea, zuzkidurak eta abar):	
- Industria jatorriko eremua da eta herrigunearen ekialdeko muturrean kokatua, Azitainerako irteeran. Barrena kaleko bakoitiak hartzen ditu; kale hori da, hain zuzen ere, eremua egituratzen duen bide ardatza. - Lokaletarako sarbideak Barrena kaletik daude zuzenean, eta dauden aparkaleku urriak kale horretan bertan daude. - Azken urteotan, eremua berritzen hasi da, eragiketa puntualen bat eginez; horren erakuskari da "Ayra-Durex" eraikin zaharraren eraldaketa tertziarioa. Hala ere, gaur egun itxita daude hainbat eraikin, besteak beste esanguratsuak diren hauek: "Hijos de A. Gabilondo", "Larrañaga y Elorza" eta "Telefónica".	
ZERBITZUAK:	
- Oinarrizkoak + zuntz optikoa.	
URBANIZAZIOAREN MAILA ETA EGOERA:	
- Zuzena. Egoera onean dago.	
ERAIKUNTZAREN EGOERA:	
- Itxita dauden eraikinak izan ezik -kontserbazio egoera pixka bat okerragoa baitute-, gainerako eraikinen egoera ona da.	

IV. JARDUERA ILDOAK

- Gaur egun itxita dauden eraikinak ordezkatzeko eta/edo birgaitzeko, indarrean dagoen plangintzan ezarritako baldintzetan. - Areako urbanizazioa hobetzea, Ego ibaiaren ibilgua eta ibaiertzeko pasealekua berreskuratuz. Ekimena: publikoa
--



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

A.2.5. "ARANE".	030-05
	EIBAR

I. KOKAPENA / DATU OROKORRAK

	ESPARRUAREN AZALERA	11.379 m ²
	LURZATI INDUSTRIALEN AZALERA	1.897 m ²
	AZALERA OKUPATUA (ERAIKUNTZA)	1.856 m ²
	HUTSIK DAGOEN AZALERA (ERAIK.)	0 m ²
	JARDUERA MOTAREN NEURRIA	T/E
	EZARPEN URTEA	50. hamarkada
	PLANGINTZA TRESNAK	EZ
	KONTSERBAZIO ERAKUNDEA	EZ



1:2.000





Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

II. INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA PLANGINTZA

HAPO / 2006-12-12
LURZORUAREN SAILKAPENA: Hiri lurzorua.
LURZORUAREN KALIFIKAZIOA: Jarduera ekonomikoko eremua.
BESTELAKO ZEHAZTAPENAK: - Hemen inbentariatutako eremua A.I.12.1 Barrena I arearen zatia da, eta indarrean dagoen HAPOan "industrial" gisa kalifikatua dago. Zona horretan, Planak finkatu egiten ditu oro har jarduera ekonomikorako dauden eraikinak («industria, etxebizitzarekin bateragarria» modalitatekoak), bestelako zehaztasunak ezarri gabe - Aipatutako A.2.5 eremuaren barruan, gainera, Aurrerá eraikina (antzinako galdategi-fabrika) dago, gaur egun lokal eta bulegoetarako erabiltzen dena, bai eta "Jata" enpresa zaharraren ordeztu garatutako bizitegi-eraikina ere. - Eremuaren zatirik handiena 52. poligonoko Plan Partziala onartu aurretik garatu zen (1962-01-26).

III. DIAGNOSTIKO OROKORRA

JARDUERA MAILA:	% 50-75
FUNTZIONALITATE OROKORRA (sarbideak, barneko sarea, zuzkidurak eta abar):	
- Eibarko hirigunean daude eta hiri izaerako eta eraikuntza bikaineko industri eraikinak dira, eta oraindik ere jarduera-maila jakin bat dute (tailer txikiak, garajeak, etab.). - Funtzionamenduan dauden lokaletarako sarbidea Arane kaletik egiten da. Kale horrek malda handia eta sekzio eskasa ditu, eta, gainera, hiri-bilbe barruan dago. Hori dela eta, bertan ezarri beharreko jarduera ekonomikoek ezin dute irisgarritasun eta trafiko baldintza zorrotzik bete. - Areak ez du espazio librerik eta ekipamenduko zuzkidurarik. Aparkalekura bideratutako azalera nahikoa dela dirudi (gaur egun okupazioaren arabera), eta plataforman bidez antolatzen da, Arane kalearen amaieran dagoen jabari pribatuko zaku-hondo batean.	
ZERBITZUAK:	
- Oinarrizkoak + gasa + zuntz optikoa.	
URBANIZAZIO MAILA ETA EGOERA:	
- Oinarrizkoa. Kontserbazio egoera: erdizkakoa	
ERAIKUTZAREN EGOERA:	
- Gaur egun industria-erabilerarako diren eraikinak oso kontserbazio-egoera txarrean daude (Arane 15 eraikina izan ezik, haren egoera pixka bat hobea baita), eta ondorioz eremu hori narriatutzat hartzen da.	

IV. JARDUERA ILDOAK

- Eremu hori leheneratzeko, funtsean, aipatutako eraikuntzak berritu/birgaitu behar dira. Gai hori ez da batere erraza izango, ezarritako jardueren kopurua eta izaera kontuan hartuta. - Hori alde batera utzita, eremuaren kokapenak, bizitegi-garapen mugakideei dagokienez (egungoak eta aurreikusitakoak), plangintzan aurrez ezarritakoarekiko planteamendu alternatiboa egitea ahalbidetuko lukeela uste da (hala badagokio, egungo eraikuntzak birmoldatzea hirugarren sektoreko eta/edo bizileku-erabilera jakin batzuk ezartzeko, ondare eraikiari balioa ematearekin bateragarria izanik).



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

A.I.125 "TXONTA".

030-07

EIBAR

I. KOKAPENA / DATU OROKORRAK



ESPARRUAREN AZALERA	77.056 m ²
LURZATI INDUSTRIALEN AZALERA	- m ²
AZALERA OKUPATUA (ERAIKUNTZA)	- m ²
HUTSIK DAGOEN AZALERA (ERAIK.)	- m ²
JARDUERA MOTAREN NEURRIA	E/H
EZARPEN URTEA	50. hamarkada
PLANGINTZA TRESNAK	EZ
KONTSERBAZIO ERAKUNDEA	EZ



1:5.000





Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

II. INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA PLANGINTZA

HAPOaren 4. aldaketa / 2015-02-23.
LURZORUAREN SAILKAPENA: Hiri lurzoru finkatu gabea.
LURZORUAREN KALIFIKAZIOA: Bizitegi.
BESTELAKO ZEHAZTAPENAK: - 2012-12-10ean hirigintza hitzarmen bat sinatu zuten Udalak eta Eusko Jaurlaritzak, Txonta auzoaren biziberritze urbanistikoa sustatzeko eta, horrela, babes publikoko etxebizitzak eraiki ahal izateko. - HAPOaren aldaketak eremuaren berrantolaketa integrala planteatzen du, gutxi gorabehera 535 etxebizitza/235 BPEko bizitegi-garapena eginez. Hainbat zuzkidura ezarri dira; horien artean, nabarmentzekoak dira auzoaren goiko eta beheko aldea barne hartuko duen parkea eta auzoaren ondoko ekipamendu soziokulturala. - la industria eraikin guztiak antolamenduz kanpokotzat jotzen dira. Hala ere, gaur egun 18 enpresa inguru daude eremu horretan, eta horiek Eusko Jaurlaritzaren jabetzako SAPUI-3 Matxariabarren sektoreko pabiloi batzuetara lekualdatzea aurreikusten da, pabiloi horiek eragiketa urbanistiko honen esku jarri lehen aipatutako hitzarmenaren barruan. Aitzitik, Txonta kalean dauden egungo bizitegi eraikin gehienak finkatu dira, 2., 11., 13. eta 15. zenbakietakoak izan ezik, eta horiek 33 etxebizitza birkokatze beharra ekarriko dute. - Arearen antolamendu xehatua ezartzeko, Hiri Antolamenduko Plan Berezi bat egingo da.

III. DIAGNOSTIKO OROKORRA

JARDUERA MAILA:	% 0-25
FUNTZIONALITATE OROKORRA (sarbideak, barneko sarea, zuzkidurak eta abar):	
- Eremurako sarbidea, gaur egun, Urkizu ibilbidetik egiten da funtsean, eta gaitz samarra da. Era berean, Arane kalearen luzapen gisa, udalerriaren goiko aldean, eremura Galiziako pasealekutik iristen da, Txonta kalearekin konektatzen den lekuraino. Bi irisbideok ez dira nahikoak, ez egungo erabilerari dagokionez, ez etorkizunari dagokionez; beraz, hobetzeko irtenbideak aurreikusi dira HAPOaren espediente honen eta beste batzuen edukietan.	
ZERBITZUAK: -	
URBANIZAZIOAREN MAILA ETA EGOERA: -	
ERAIKUNTZAREN EGOERA:	
- Industria eraikinek hartzen dute eremuaren zatirik handiena, eta oso kontserbazio egoera txarrean daude. Horregatik hartzen da ingurua, hein handi batean, oso narriatua dagoen eremutzat.	

IV. JARDUERA ILDOAK

- HAPOaren 2015eko Aldaketan eremua leheneratzeko eta antolatzeko ezarritako irizpideak egokitzen dira.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

A.I.207 "MATSARIA".

030-08

EIBAR

I. KOKAPENA / DATU OROKORRAK



ESPARRUAREN AZALERA	48.375 m ²
LURZATI INDUSTRIALEN AZALERA	- m ²
AZALERA OKUPATUA (ERAIKUNTZA)	- m ²
HUTSIK DAGOEN AZALERA (ERAIK.)	- m ²
JARDUERA MOTAREN NEURRIA	E/H
EZARPEN URTEA	1954 aurrekoa
PLANGINTZA TRESNAK	EZ
ENTIDAD DE CONSERVACION	EZ



1:5.000





Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

II. INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA PLANGINTZA

HAPO / 2006-12-12.

LURZORUAREN SAILKAPENA: Hiri lurzorua.

LURZORUAREN KALIFIKAZIOA: Jarduera ekonomikoko eremua.

BESTELAKO ZEHAZTAPENAK:

- HAPOak eremuaren berrantolaketa osoa proposatzen du, eta, horretarako, balio erantsi handiko jarduera ekonomikoak ezartzea ahalbidetzen du (egungo eraikinak ordeztu ondoren), ibilgailu astunen joan-etorriak edo lurzorua okupazio handia ez dakartzaten jarduerak, alegia..
- Dauden ia industria eraikin eta etxebizitza eraikin guztiak eraitsi egingo dira, eta, nolanahi ere, Plan Berezia onartzen den unean irauten duten erabilerak birkokatu egingo dira. Horretarako, bizitegi eraikinen bat eraiki ahal izango da Jardiñeta kalearen inguruan, eta horrek, gainera, balioko du alboko bizitegi sarearen eta eremu horretako jarduera ekonomikora bideratutako eraikin berrien arteko trantsizioa bideratzeko.
- Areari buruzko Hiri Antolamenduko Plan Berezi bat egingo da, eremuaren antolamendu xehatua ezartzeko.

III. DIAGNOSTIKO OROKORRA

JARDUERA MAILA:

% 25-50

FUNTZIONALITATE OROKORRA (sarbideak, barneko sarea, zuzkidurak eta abar):

- Gaur egun, eremurako sarbidea N-634 errepidearen saihasbidearekin lotzeko adarrean dagoen biribilgunea da. Era berean, herrigunetik bertatik trenbide azpiko pasabide estu bat dago, Bittor Sarasketa kalearen luzapenean.
- Arearen berrantolaketa integralari esker, hobetu egingo da egungo barne bidea (Matsaria kalea), eta eremuaren zerbitzurako zuzkidura publikoak lortuko dira, gaur egun ez baitaude.

ZERBITZUAK: -

URBANIZAZIO MAILA ETA EGOERA: -

ERAIKUNTZAREN EGOERA:

- Industria eraikinek hartzen dute eremuaren zatirik handiena, eta oro har oso kontserbazio egoera txarrean daude, salbuespenak salbuespen (Matsaria 2). Horregatik hartzen da ingurua, hein handi batean, oso narriatuta dagoen eremutzat.

IV. JARDUERA ILDOAK

- HAPOan eremua leheneratzeko eta antolatzeko ezarritako irizpideak egokitzen jotzen dira. Nolanahi ere, eragiketaren zailtasunak ekimen publikoa eskatuko du, dela administrazio bakar batena, dela hainbat administrazioarena.



Gipuzkoako Foru Aldundia


Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

A.12.A. "ARRIAGA 1".


032-01

ELGOIBAR

I. KOKAPENA / DATU OROKORRAK



ESPARRUAREN AZALERA	150.739 m ²
LURZATI INDUSTRIALEN AZALERA	- m ²
AZALERA OKUPATUA (ERAIKUNTZA)	- m ²
HUTSIK DAGOEN AZALERA (ERAIK.)	- m ²
JARDUERA MOTAREN NEURRIA	E/H
EZARPEN URTEA	70 hamarkada
PLANGINTZA TRESNAK	BAU
KONTSERBAZIO ERAKUNDEA	EZ



1:10.000





Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

II. INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA PLANGINTZA

HAPO / 2012-11-29
LURZORUAREN SAILKAPENA: Hiri lurzoru finkatua..
LURZORUAREN KALIFIKAZIOA : B.10 eremua, industria erabilera
BESTELAK ZEHAZTAPENAK: - Indarrean dauden Arau Subsidiarioek gauzatu diren industria-garapenak finkatzen dituzte, eta, aldi berean, egiteke dagoen hirigintza-eraikigarritasuna gauzatzeko baldintzak ezartzen dituzte. - Arearen zati handi bat 70eko hamarkadaren amaieran garatuta bazegoen ere (plan partzial bat izapidetu zen, eta bi aldiz ukatu zen), 1994an Plan Berezi baten eta plangintza orokorraren hainbat aldaketa onartu ondoren bete zen.

III. DIAGNOSTIKO OROKORRA

JARDUERA MAILA:	> % 75
FUNTZIONALITATE OROKORRA (sarbideak, barneko sarea, zuzkidurak eta abar):	
- Area trenbidearen alde batean dago, N-634 errepidetik sarbide bakarra du, eta hobetu egin daiteke. - Industrialdea Danobat taldeko hainbat instalaziok okupatzen dute gehienbat. Gaur egun, lurzatiren bat oraindik eraiki gabe dago. Halaber, orain dela gutxi arte Eizen (lehengo Sarasketa) industrialdeko beste leku batean zegoen eraikina itxita dago. - Ez dago espazio libreen eta ekipamenduen zuzkidura gaiturik. - Aparkatzeko arazo puntual batzuk ditu eremuko gunek jakin batzuetan (Ideko-Danobaten sarrera eta beste batzuk).	
ZERBITZUAK:	
- Oinarrizkoak + gas naturala.	
URBANIZAZIOAREN MAIALA ETA EGOERA:	
- Oro har, egokia, oraindik egiteko dauden eremu txiki batzuk izan ezik. Egoera onean dago	
ERAIKUNTZAREN EGOERA:	
- Ona.	

IV. JARDUERA ILDOAK

- Areako urbanizazioa hobetzea eta osatzea. Ekimena: publikoa. - Eraikina birgaitzea, hala badagokio.



Gipuzkoako Foru Aldundia


Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

A.7.C "AITZKORRI 3".

032-03

ELGOIBAR

I. KOKAPENA / DATU OROKORRAK



ESPARRUAREN AZALERA	12.182 m ²
LURZATI INDUSTRIALEN AZALERA	7.779 m ²
AZALERA OKUPATUA (ERAIKUNTZA)	4.422 m ²
